

IZAN ZIRELAKO GARA, GARELAKO IZANGO DIRA

1. Sarrera

Hertzainak taldearen kantuak zioen bezala: “ez dira betiko garai onenak” eta ez, ez dira garai onenak euskal komunikabideentzako. Azken urteotan asko hitz egin da euskaraz soilik izango diren komunikabideen inguruan baina hitz asko eta aurrerapen gutxi ikusi ahal izan da gai honen inguruan.

Duela urte gutxi batzuk, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatuta, HAKOBAK (Herri Aginteen Koordinaziorako Batzordea) gogoeta ireki bat egin zuen gaian adituak diren hainbat pertsonen artean. Hauen iritziak orotarikoak diren arren, egoera ez da aldatu eta euskal hedabideek eskaintza gutxi izaten jarraitzen dute. “Euskara hedabideetan” liburuan aipatzen da irakurle, ikusle eta entzule euskaldunen kopurua ugartuz joan dela urtez urte eta datu ona den arren, ezin uka daiteke arazo bat dugula euskaldunok geure ama hizkuntza den euskaraz komunikabideak edukitzerako garaian.

2. Egungo euskal komunikabideak

Gaur egun euskaraz soilik argitaratu edo eskaintzen diren hedabideak aukeran gutxi dira. Nazio mailako egunkarietan “*Berria*” aurki dezakegu euskaraz soilik eskuratu dezakeguna eta “*Hitza*” eskualde mailan. Euskal Herri mailan argitaraturiko gainontzeko guztiak elebidunak dira edo gaztelania hutsez argitaratzen dira. Aldizkari orokorrez hitz egiten badugu, “*Argia*”, “*Nabarra*” eta “*Aldaketa hamasei*” aurkituko ditugu euskaraz idatzirik eta espezializatueta berriz, “*Elhuyar zientzia eta teknika*”, “*Entzun!*”, “*Bertsolari*” eta “*Ostiela!*”.

Irratiarekin jarraituz, egia esan, egunkariak baina eskaintza gehiago dutela esan dezakegu egunerokoari dagokionez. “*Euskadi Irratia*” hedatuena da Hego Euskal Herria, Iparraldean berriz, “*Gurea Irratia*”, “*Irulegi Irratia*” eta “*Xiberoko Botza*” dira entzule gehien duten irratia. Irrati espezializatuen artean norbait nabarmendu behar bada, “*Euskadi Gaztea*” da entzunena eta musika arloan dihardute, Tokian tokiko irratia geroz eta hedatuago daude eta herrietako jendearen artean zabalitzen doan heinean entzuleak ere irabazten dituzte. Penagarria den arren, hiriburuetan maizago entzuten dira erdaraz soilik emititzen diren kateak esaterako: “*Radio Euskadi*” eta “*Radio Vitoria*”.

Euskal Herri mailan emitituriko telebista kate bakarrak “*EITB 1*” eta “*EITB 3*” dira. Arazo larritzat joko nuke bi kate soilik edukitzea jakinik telebista dela medio hedatuena biztanle guztien artean eta adin guztietako ikusleek parte hartzen dutela. Tokian tokikoak ere badauzkagu eta zenbaitek miresmena edo prestigioa irabazi dutela esan dezakegu. Aipatzekotan: “*Zarauzko Telebista*”, “*UK4*”, “*Goierrri Telebista*” ... Zoritxarrez ordea, “*Telecinco*” kate pribatu eta erdalduna da Hego Euskal Herrian gehien ikusten den katea.

Ikus daitekeenez eskaintako hedabideak urriak dira izango lituzketen edo ditzaketen ikusle,entzule edo irakurle kopuruarentzako. Laburbilduz: Bi egunkari, 4 irrati eta 2 telebista kate ditugu

euskara hutsean. Kopuruak ez lukete hainbesteko garrantzia edukiko kontsumitzaileak guztiz asebeteko balituzte beraz, garrantzitsuena ez da kantitatea baizik eta kalitatea.

3. Lehenetsi beharreko hedabideak eta kontsumitzaile taldeak

Adituen artean iritzi kontrajarriak daude gai honen inguruan. Gehienen ustez, atentzio gehiegi jarri diegu irrati eta telebistari eta beste hedabideak alde batera utzi ditugu. Egia da, gaztea naizen partetik, gazteok gehien kontsumitzen ditugun komunikabideak irrati eta telebista izan direla orain urte gutxi batzuk arte. Orain hedatuena internet dela esateko beldurrik edota zalantzarik ez daukat. Askoren ustetan telebista eta interneteko hedabideei eman behar zaie lehentasuna gazteak etorkizuna izanik, berauek kontsumitzen ditugulako gehien. Baina ez dut uste horregatik arreta askoz gehiagorik merezi dutenik. Ahaztu gabe, adinekoen artean, hedabide zabalduena egunkaria edota irrati da eta ezin ditzakegu baztertu, adinekoek ere gazteen antzera, euskaraz informatzeko eskubidea dutelako.

Egia da, euskal biztanleentzako “gogorra” egiten zaigula telebista piztu eta orain gutxiarte kate bakar bat soilik aurkitzea euskaraz eta hainbat eta hainbat erdaraz. Bestalde, aipagarria da baita ere “EITB 1” katean emititzen duten programazioa. Euskara hutsezko hedabideen alde borrokan aritzeak, beste hizkuntzetan dauden kateekin ere borrokatzea esan nahi du. Honekin zera adierazi nahi dut, teleberria beste guztien ordutegi berean emititzea adibidez edota eskainitako telesail eta programek kanpokoek adinako interesa edukitzea. Zaila suerta daitekeen arren, ikusleen artean galdeketa bat egitea edota besteen kateetan zerk interesatzen duen begiratzea interesgarria litzateke. Betiere, ikuslego tradizionalen interesak mantenduz eta hauek galdu gabe kontsumitzaile berriak lortzeko bide berriak eraikiz.

Hala ere, iruditzen zait, bakoitzari eta ikusle, entzule, irakurle edo interesa dutenen arabera jarri behar zaiola hedabide bati lehentasuna. Ez baita nahikoa gazte edo nerabeek internet erabiltzen dutelako bertan jartzea arreta guztia. Bakoitzak bere neurrian jaso behar du babesa, batzuek gehiago besteek gutxiago.

Kontsumitzaileen taldeari dagokionez, adituek 16-45 urte bitartekoei ematen diete lehentasuna. Egungo kontsumitzaileak eta etorkizunekoak direlako baina adinekoak zer? Beraiek ere ez al dute kontsumitzen? Nire ustez, akats larri bat litzateke talde hau alde batetara uztea beraiek prentsa idatzi eta irratiaren jarraitzaile nagusiak direlako. Bestalde haurrak ere kontutan hartzeko taldea dela uste dut. Txikitatik euskarazko hedabideetan ibiltzen erakutsiz gero, adinean aurrera doala ere halaxe egingo dutelako eta nola ez, nerabe edo gazteen atzetik datorren etorkizuna delako. Orokortuz, nik ez nioke talde zehatz bati emango garrantzia, egia da momentu honetako “krisi” honetatik lehenbailehen ateratzeko gazteei emango niela lehentasuna baina etorkizunera begiratzuz eta oztopo hau alde batera utziz, guztiei aitortuko nieke dagokien partea. Denon artean eta guztien esfortzuarekin soilik lortuko dugulako euskal komunikabideen garapena eta aurrerakuntza.

4. Administrazioen laguntza

Ezinezkoa litzateke egun, laguntza hauek gabe komunikabide bat aurrera ateratzea. Beharrezkoak ditu edozein hedabidek. Euskal Herri mailan ordea laguntzak nori eman dela gakoa uste da. Nire ustez, diru-laguntza hauek euskaraz soilik diren komunikabideek jaso beharko lituzkete. Nola egingo dute aurrera euskara hutseko komunikabideek erdarazkoei ematen bazaizkie laguntzak? Diario Vasco, El Correo... Hego Euskal Herrian zabalduen dauden egunkariak diru-laguntza hauek jasotzen dituzte baina zer egiten dute euskararen alde? Ezer gutxi. Honegatik diot laguntzak euskarazkoei soilik eskaini behar zaizkiela laguntzak aurrera egiteko eta ahal den toki guztietara iristeko. Bestalde ezin uka diezaieket elebidun diren edo Euskal Herrian egiten diren hedabideei laguntza hau. Baina gutxienez, laguntza jasotzen badute, behar ditzatela euskararen alde zerbait egitera edo euskara hutsean zerbait argitaratzera. Esaterako: albiste garrantzitsuenak bi hizkuntzetan idatzi edo transmititzea.

Honela, euskara hutsezko hedabideei bultzada handi bat emango genieke eta kontsumitzaile kopurua ere handituko dela uste dut. Ondorioz, handitze honek euskal hedabide gehiago sortzea ekarriko luke eta pixkanaka beste hizkuntzen pare jartzen joatea posible dela iruditzen zait. Eta erdarazkoei emaniko laguntzak aurretik aipaturiko kondizioekin badira, euskarari berari eta erdal kontsumitzaileari onura ekarriko lioke, jende asko baitago euskaraz ikasteko edo gutxienez informazio garrantzitsua euskaraz jasotzeko gogoz.

5. Erabiltzaile kopurua

Nire aburuz eta baita aditu askoen iritziz ere, ezin daiteke kontsumitzaile gutxiengo bat ezarri. Aditu batzuek, hedabide zabalduenak lagundu behar direla esaten duten arren ni ez nago ados. Komunikabide masiboak laguntzen baditugu, txikiagoak direnak edo hedatzeko bidean daudenei bidea ixten diegula iruditzen zait. Nire ustez, erabiltzaile kopurua, ezin zehaztu badezaket ere, komunikabidea aurrera atera dezaketen kontsumitzaile kopurua badaukate, nahikoa da. Diru laguntzak kontuan harturik betiere. Errazena komunikabidea sortzea da. Gero dator arazoa, nola zabaldu? Nork irakurriko du? Zein eremutan?

Sortzeko garaian, aurretik aipaturiko gauzak kontuan izan behar dira eta hasierak errazak ez direla ere bai. Komunikabidea zabalduko dugun eremua, jendea, ohiturak... ondo aztertuak egon behar dute sortu berri den egunkari, aldizkari, irratia, blog, telebista... kontsumitzaile nahikoa eduki eta aurrera egin dezan. Noski, jasoriko diru-laguntzek berebiziko garrantzia izango dute zabaltzeko orduan baina sortzaileen lana dela uste dut, dituzten kontsumitzaileak mantendu eta gehiago erakartzeko gaitasuna edukitzea komunikabideak.

6. Etorkizuneko hebabideak

Etorkizuneko hedabideak nolakoak izango diren deskribatzerako garaian, ados nago adituekin. Beraiek hainbat puntu zehazten dituzte hedabideen mapa ideala sortzerako orduan:

- Dibertsitatea – aniztasuna.
- Normaltasuna.
- Entreenimendua.
- Informazio orokor zein espezializatu emango duten hedabideak.
- Euskarri guztiak lantzea eta elkarkidetz (sare horizontalak eta bertikalak).
- Lankidetz

Nire ustez, etorkizunean izango ditugun euskal hedabide gehienek puntu hauetariko gehienak beteko dituzte. Honela, kontsumitzaileak gustura edukitzea eta bide berriak zabaltzea posible delako.

Euskal hedabideen etorkizuna nire ustean deskribatzeko eskatuko balidate hau esango nuke: euskaraz emitituriko telebista gehiago jarriko nituzke adin-talde ezberdinentzat edo interes ezberdineko programazioarekin. Idatzian berriz, hasieran hainbat nazio mailako egunkari egongo direla uste dut euskara hutsean. Geroago eta egunkari hauen kontsumitzaileak ugartu ahala, tokian tokiko euskalkiez idatziriko egunkari orokorrak sortuko nituzke. Honela bakoitza bere lurraldeko euskalkian informaturik egongo litzateke eta askotan arrotzak zaizkigun euskara batuko hitzak saihestuko genituzke. Nik uste, honela kontsumitzaile gehiago lortuko liratekeela eta honekin, komunikabidearen etorkizuna ere ziurtatzen dugu. Nola ez, interneten ere edizioak izango litzukete egunkari hauek edozein unetan berrituz. Geroz eta teknologia aurreratuagoa baitauek eta geroz eta gehiago erabiltzen delako internet-a paperezko edizioa baino. Jakin izan dugun bezala, euskarazko informazio agentzia bat sortzeko eta multiflataforma estrategia ekimenak martxan daude jada.

Irratiari dagokionean, ez nituzke gehiago sortuko daudenak bere horretan mantentzen saiatuko nintzateke eta nola edo hala entzuleak erakartzen; bai programazioaren aldetik eta baita kalitatearen aldetik ere. Nik uste egun nahiko irradi baditugula eta lortu behar duguna hauen biziraupena eta interesa handitzea dela.

7. Amaierako gogoetak

Iritziak iritzi eta esanak esan, argi dagoena da lan asko dugula egiteko guztiok, bakoitzak bere aldetik. Esaerak dioen bezala “ Denok eman behar dugu zerbait gutxi batzuk dena eman ez dezaten”. Ikusi genuen, “*Euskaldunon Egunkaria*” itxi zutenean euskaldun askoen erreakzioa. Erakutsi zen indarrak eta euskarazko komunikabideak edukitzeko gogo eta ametsak, indar gehiagorik borrokatzeko motibazioa eman zuela iruditzen zait. Guztion artean posible delako etorkizun hurbilean euskaraz soilik argitaratutako hedabideen sorrera eta biziraupena.

Ikusi izan dugun bezala, euskal hedabideek badute eskaria. Honela jarraituz eta publikoaren interesa kontuan edukiz jokatzeko badugu, komunikabideak aurrera egitea posible izango litzateke. Eta nor daki, baliteke euskal komunikabideen artean konpetentzia izatea kanpoko hizkuntza hedabideak albo batera utziz.

Ez da asko amestea, nire ustez, aurretik esaniko gauzak gertatuko direla ustea. Frankismoaren garaitik aurrera beti egon izan da euskal hedabideren bat nahiz eta, beti egon izan den oztopo egintzen dioz zerbait. Egungo kasuan esaterako, Nafarroako Gobernuak uko egiten dio euskarari . Ziur asko, garai

haisetako sortzaileek ez zuten ilusio edo esperantza handirik edukiko. Eta hain urruti iritsiko zirela ere pentsatu ote zuten? Beraiek eginiko lanari jarraipena emanaz egungo egoerara iritsi bagara, zergatik ez diogu ba geuk egungo lanari eutsi eta euskal hedabide gehiago sortuko?

Nire amonak dioenez bere garaian, irratia eta bera justu-justu entzuten zuten euskaraz. Egun ordea, egunkari, aldizkari, blog, telebista... ikus ditzakegu euskara hutsean, gutxi baina badira. Etorkizunean zergatik ez gara ba kapaz izango euskara hutsean eginiko komunikabide anitz sortzeko beraiek bide horri hasiera bat eman bazioten?

Guztion esku dago euskal hedabideen etorkizuna eta euskara hutsean kontsumitzeko eskubidearen borroka. Nire amonaren adibideak inspiraturik honako hau esango dizuet:

“IZAN DIRELAKO GARA ETA GARELAKO IZANGO DIRA!”

Arantxa Arozena Aranguren.